

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasun Departamentuak pazienteen eskola bat sortu du gaixo kronikoei eta haien senideei laguntzeko

Osasun-zentroek dagoeneko egiten dituzten ekintzak osatzea du xede, gaixotasunari aurre egiteko informazioa, heziketa autozaintzan eta laguntza emozionala emanez

Viernes, 27 de marzo de 2015

Osasun Departamentuak pazienteen eskola bat abian jarri du, gaixo kronikoen eta haien senideen osasuna nahiz ongizatea hobetzeko asmoz; horretarako, gaixotasunari aurre egiteko informazioa, heziketa autozaintzan eta laguntza emozionala emango zaie.

Ekimena Osasuneko zuzendari nagusi Isabel Ansak eta Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Nafarroako Institutuko (ISPLN) zuzendari Marisol Arangurennek aurkeztu dute gaur, prentsaurrekoan.

Era honetako esperientziekin, osasun-egoera berriari aurre egin nahi zaio biztanleen artean, zahartze-maila handia duena, eta gaitz kroniko eta endekapenezkoak dira gaixotasuna izateko eta heriotzaren arrazoi nagusiak. Bilakaera geldo eta luzeko gaixotasunak dira, eta tratamendu orokorra eskatzen dute, gainera, botikak hartuz eta bizi-estiloan aldaketa handiak ekarri. Horrek guztiak, ondorio garrantzitsua sortzen du, gaixoan ez ezik, baita beren ingurune familiarrean ere.

Eskola ekintza osagarri eta lagungarri modura sortu da, eta bertan parte hartzen hasi dira jadanik pazienteak hezteko eta gaitzeko osasun-zentroak, gaixoen elkarrekin lankidetzan.

Lehen etapa batean gaixotasun kronikora mugatzen da, eta Paziente Kronikoak eta Patologia Anitzekoak Artatzeko Nafarroako Estrategian beste elementu baten modura sartuta dago. Nolanahi ere, haren sorrera herritarrentzako Osasun Eskolaren plangintza zabalago batean sartzen



Eskola sustatzen duen kartelaren irudia.

da, eta etorkizunean jorratuko da gizartean dauden beste osasun-arazo batzuei aurre egiteko, adibidez: zahartze osasungarria, pisua, gurasoen eskola...

Eskolako jarduerak

Pazienteen Eskolan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Osasuna Sustatzeko Atalak koordinatuko du. Haren xedea gaixotasun kroniko bat diagnostikatzeko sortzen diren beharrak aztertzea da, pazienteak eta haren senideek ahalik eta autozaintza-maila, osasun eta ongizate onena lor dezaten.

Horretarako, prestakuntzako zenbait ekintza eskaintzen ditu: tailerrak, ikastaroak, mintegiak, aurrez aurre nahiz on-line. Lehen unean sortutako taldeak patologia kroniko ohikoenetan oinarrituta daude: (kardiobaskularrak, garuneko hodietakoak nahiz giltzurrunetakoak...), diabetesa, arnas-gaixotasunak (EPOC eta asma), edo dementziak, alzheimerra barne. Ondoren, beste prozesu batzuetara zabalduko dira.

Irakasle-taldeak osasuneko profesionalak nahiz adituak diren pazienteek osatuko dute, horretarako bereziki trebatutakoak, eta borondatezko lana egiten dutenak, funtsean. Zehazki, 9 profesional prestatu dira (erizaintzako 7 eta gizarte-laneko 2) eta 9 paziente kroniko

Gainera, Pazienteen Eskolak bere [webgunea](#) du Salud.Navarra atariaren barnean. Bertan, herritarrek eta profesionalak laguntzeko eta kontsultarako agiriak eskura ditzakete, bai eta programatutako jarduerak ere. Webgune horretan, hain zuzen, irakasle-taldeak (profesionalak eta pazienteak) eskola eta beren esperientziak azaltzen dituzten bideo batean.

Jarduerak ISPLNren egoitzan egingo dira (Leire kalea, 5) edo era deszentralizatuan Nafarroako hainbat zonaldetan, biztanle guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Aurten, ondorengo prestakuntza-ekintzak programatu dira, eta maiatzetik ekainetik egingo dira:

- Elikadura osasungarriaren tailerra gaixotasun kronikoetan.
- Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten pazienteak zaintzen dituzten pertsonentzako tailerra.
- Gaixotasun kronikoei aurre egitea.
- Gaixotasun baskular batekin bizitzea.

Eskolan parte hartzeko informazioa eta harremana honako era honetan lor daiteke: telefonoz (848421954, 08:00etatik 15:00etara), posta elektronikoz escueladepacientes@navarra.es eta ondorengo webgunearen bidez: <http://www.escueladepacientes.navarra.es>. Gainera, norberaren osasun-zentroan bertan ere eska daiteke informazioa.

Gaixotasun kronikoa Nafarroan

Nafarroan, Paziente Kronikoaren Arreta Integralaren Estrategiaren barnean dagoen patologiarik bat duten 92.887 pertsona daude.

Asma duten pertsonen osatzen dute talde handiena: 31.834 (adin txikikoak ere sartzen dira zifra horretan), eta haien atzetik datoz diabetikoak; 24.402. Kardiopatia iskemikoa dutenak 8.536 dira, eta Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa dutenak (BGBK), 7.558. Iktusa izan dutenak (garuneko hodietako ezbeharrak) 7.284ra igo dira eta giltzurruneko gutxiegitasuna dutenak 7.109 dira. Azkenik, 3.539 pertsonen dute dementziaren bat eta gutxiegitasun kardiakoa duten 2.625 pertsona daude. Gainera, orain arte aipatutako taldeen artean, beste patologia-kroniko bat dago –osteomuskularra-, biztanleei portzentaje handian eragiten diena, eta aurrerantzean Estrategiaren barnean sartuko dena.

Osasun-sisteman publikoa 1988tik gaitz kronikoak dituzten pertsonen autozaintza-gaitasuneko modalitateak garatzen ari da, informazio, banako eta taldeko heziketa, autoprestakuntzarako irakaskuntza eta abarren bidez.

2008.urtetik, lan horrek jadanik bere protokoloa du, eta Lehen Mailako Arretako Zuzendaritzaren eta INSLren artean elkarrekin garatzen da. Izan ere, lan horrek aurten Osasun Ministerioaren saria jaso du Jardunbide Egokiaren Eredua izateagatik.